

## JAIOTERRI

Haizeak eraman zuen haurtzaroko jauregia  
eta oroimenaren gelak ere hustutzen hasiak zaizkizu.

(Mendeen hautsa kulunka  
zokoetako amaraun poligonaletan)

Bizitza airean desegiten den kea da,  
udazkenaren balkoitik dakusazun desolazioaren paisaia.

Baina ametsak ezerezaren lurretan aurkitu zuen bere gorpu-  
/tza

eta zuk ere zerbait solidoa eraiki nahi zenuke:  
denboran jaio eta denboragabetasunera zinderamatzen  
/haurtzaroko erreka.

Maiatzako kilkerak  
erloju bat zuen bere elitroetan  
eta handik isurtzen zituen eternidadeak tantaka bere segun-  
/duak,

-basaliliak eta sekulabelarrak perfumatutakoak-  
oihanaren abarrotsetan gaindi.

Enarek espazioa gezikatzen zuten  
argiaren galsoroetan  
eta altzak zaintzen zuen erreka etxeko neskatxa zen,  
uraren gorputz higaezina.

Haurtzaroaren jauregian ez zegoen ezer ulertu beharrik,  
usainduz ulertzen bait zenuen mundua,  
arrosak eta krabelinak.

Eta loreak zerizkion haurtzaroko udaberriari,  
loreak eta loreak,  
haragiaren eremuetan  
ezpatabelar gorriak dardar.

Apirilak erbesteratutako usoak  
atzera ekartzen zizkizun urriak  
eta haien joan-etorrietan ez zen ezer galtzen  
mugimenduaren ibai guztiek  
eternidadearen ozeano geldia bait zuten helmuga.

Baina iragan zibilizazioetan bezala,  
haizeak eta denborak zure betiko tenpluak ezabatu ditu,  
hegazti hegal-beltzek bete dute zeruaren urdina  
eta bakardadeak habitatzen ditu orain arkitekturaren eskele-  
/toak,

husgune bat hemen, husgune bat han.

Astunak dira  
aire itoaren berunaz eginak dauden husgune horiek  
eta denborari espazioaren ahidura dario.

Horrelako hondamenaren aurrean  
hautzaroko begiak berreskuratu nahiko dituzu  
eta begi horien prisma optikoek eragindako inbertsioan  
haragi hilezkorrez jantziko dituzu eskeletoak  
zerua kobalto-urdinez,  
eternidadez mugagabetuko denboraren iheskortasuna.

Eta azkenean ez duzu jakingo  
zuk eternidadea asmatu  
ala eternidadeak berak zu asmatu ote zaituen.

**Joan Mari Irigoien**

---

## UDAZKENERAKO KANTIKA

Gordeko du agorrak beti alkoba gorriak  
begirada konplizeen babeserako.  
Utziko ditu ezpain likak  
sexu puberretan itsasten  
larraren fruitua lehertu aurretik  
gozamenezko suleze ahotan.  
Alporea nagusituko da urriaz  
itzal luzexkak proiektatuz  
tendrezia ahantzi zuen  
harrizko murru sepian.  
Lotuko zaio ura urari azaroan,  
gorputz gazte dardaratiak  
desioaren mozkorraldirako  
elkarrengana estutzean.

**Inazio Mujika Iraola**

---

## CANCION PARA EL OTOÑO

Esconderá siempre septiembre alcobas rojas / protegiendo miradas cómplices. / Dejará  
que labios húmedos / se sellen a sexos púberes / a las puertas de infiernos de gozo. / El  
vapor se adueñará de octubre / proyectando sombras estiradas / en el muro sepia de  
piedra / que la ternura olvidó. / Correrá el agua tras el agua en noviembre / cuando  
cuerpos jóvenes y convulsionados / se aprieten entre sí / en la borrachera del deseo.